


## Xabierrek eta Xabierri buruz idatzitakoak



**2026ko  
apirilean**

**Xabier Sánchez Erauskin** (Gasteiz, 1935eko martxoaren 7a - Algorta, 2026ko apirilaren 23a) kazetaria izan zen. 1950eko hamarkadan apaiz izan zen, Okinan (Araba). 1960ko hamarkadan, berriz, Ternuako (Kanada) uretan zebiltzan arrantzaleen Stella Maris-ko kapilau jardun zuen. Gero, Kazetaritzako ikasketak eginda, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan Posible, Cuadernos para el diálogo eta Egin agerkarietan aritu zen lanean. Anaia zuen José Luis Sánchez Erauskin Santxon Baskonia saskibaloi-taldeko jokalaria eta presidente ohia.



Egin egunkariak Gasteizen izan zuen lehen delegazioburua izan zen, bai eta Punto y Hora aldizkariko zuzendaria ere. HBko mahai nazionalean ere parte hartu zuen. Elkarrizketa Herria 2000 Eliza elkarteetan ere lan egin du. Erretreta hartu aurreko azken urteetan, Kazetaritzako irakasle jardun zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. 1983ko apirilaren 15ean, Xabier Sanchez Erauskin kazetariari 18 hilabeteko espetxe zigorra jarri zioten, Punto y Hora aldizkariko bi artikulurengatik. Xabier zen hedabidearen zuzendaria, eta aurretik zeukan urtebeteko zigorrari batu zitzaion Espainiako Erregea iraintzea egotzita beste sei hilabetekoa. Artikuluan Borboiak Gernikako Juntetxera egindako bisita zuen hizpide zezenketako hizkera erabiliz, tonu umoretsuan. Franco hil ondorengo Espainiako trantsizioan, Sanchez Erauskin izan zen iritzi delitu bategatik kondenatua izan zen lehen profesionala.

Periodista alavés, nació en Vitoria en 1935. Licenciado en Filosofía y Letras; redactor de *Saida y Egin* (1977). Director de *Euskadi Sioux* (1978) y de *Punto y Hora* (1979)

### Argitaratutako lanak:

**Tesis**  
**El nacionalcatolicismo en las vascongadas del primer franquismo (1936-1945) como clave del intento legitimador de un régimen.** Javier Sanchez Erauskin. Tesis doctoral dirigida por Pedro Ibarra Güell (dir. tes.). Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea (1993).

### Liburuak





**Euskadi: El último estado de excepción de Franco.**  
 Sanchez Erauskin, ed. (Ruedo Iberico, Paris, 1975)



**Gasteiz-Vitoria. De la huelga a la matanza.**  
 Sanchez Erauskin, ed. (Ruedo Iberico, Paris, 1976)

**Cuerpos Represivos, Disolución.** Sanchez Erauskin, ed. (Mugalde, Hendaia, 1978)




**Que se vayan.** (Hordago, Donostia, 1978)  
 ISBN 9788470990427

**Txiki-Otaegi.** El viento y las raíces  
 (Hordago, Donostia, 1978)  
 ISBN 9788470990663




**Que se vayan ya** (Mugalde, Hendaia, 1978)



**El delito de opinar.**  
 (Punto y Hora, 1983)

**La cuenta de los pasos.**  
 Poesia, (Vosa, Madrid, 1988)  
 ISBN978-84-86293-48-2






### **El nudo corredizo.**

(Txalaparta, Tafalla, 1994) ISBN 978-84-8136-914-4

Gerra ondoko urteek Euskal Herrian suposatu zutenaren errebaso historikoa. Hizkuntzaren debekua, sinboloak erabili eta aspaldiko ohitura eta tradizioen ospatzeari beldurra...

### **Por Dios hacia el imperio.**

Neonacionalcatolicismo en las vascongadas del primer franquismo, 1936-1945. (R & B Ediciones / Kriseilu, 1994) ISBN 978-84-88947-09-




### **José Bergamín. Escritos en Euskal Herria.**

(Txalaparta, Tafalla, 1995) ISBN 978-84-8136-016-5

Bergaminek, berak amestu eta maite zuen España peregrina horren exiliatu nekaezina eta horregatik hiru koloreko bandera errepublikarraren korrontearen aurkako ikur-eramale, edo bere heriotzean, ikurrina edo erreboltaren Eusko Gudariak-ena, boterearen ezaugarri zikinen eta itsusienak erakutsi egin zituen, politikoen hipokresia nazkagarria, hiltzaileen agurrak bizkarrean, soldatapeko olerkariaren estrofa urratuak...


### **José Bergamín, Ángel rebelde.**

Javier Sanchez Erauskin. Tres Cantos (Madrid): Foca, [2007]. ISBN 978-84-95440-92-1



### **Xabier Sánchez Erauskin. Vida de un rebelde con causas.**

Joxe Felix Azurmendi  
**Un Cura en Terranova.** Javier Irigoien Martínez  
**Xabier Sánchez Erauskin** kazetari eta idazleari buruzko liburua da. Liburuak Sánchez Erauskinen 1960ko hamarkadan Ternuan (Kanada), Stella Maris misioaren barnean, bakailao-arrantzaleen kapilau gisa bizitako esperientziak biltzen ditu.



### **Ha sido reseñado en:**

**La Iglesia vasca y el primer franquismo.** José Luis de la Granja Sainz

Zer: Revista de estudios de comunicación = Komunikazio ikasketen aldizkaria, ISSN-e 1137-1102, Nº. 9, 2

### **Artículos de revistas:**

**Terranova y Saint Pierre en la década dorada de las parejas:** Recuerdos y experiencias de un superviviente (1963- 1970) Javier Sanchez Erauskin

Itsas memoria: revista de estudios marítimos del País Vasco, ISSN 1136-4963, Nº. 8, 2016 (Ejemplar dedicado a: Ondare ez-materiala, memoriak eta ahozko iturriak = Patrimonio inmaterial, memorias y fuentes orales), págs. 481-516

**José Bergamín. Último exilio en Euskadi:** razones y verdades de un recalcitrante heterodoxo. Javier Sanchez Erauskin

Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria = revista de pensamiento e historia, ISSN 1578-0058, Nº. 17, 2005 (Ejemplar dedicado a: Euskal autonomiaren bidarriak eta giltzarriak = Hilos y claves de la autonomía vasca), págs. 62-74

**El nacionalcatolicismo como instrumento cultural y legitimador del Franquismo en el País Vasco (1936-1945).** Javier Sanchez Erauskin

Vasconia: Cuadernos de historia - geografía, ISSN 1136-6834, Nº 27, 1998 (Ejemplar dedicado a: IV Tokiko Historiako Ihardunaldiak: Kulturaren giza transmisio erak = IV Jornadas de Estudios Histórico Locales: Formas de transmisión social de la cultura = IV Journées d), págs. 235-244

**Raíces de la violencia:** papel ideológico de las capitales vascas en el primer Franquismo. Javier Sanchez Erauskin. Vasconia: Cuadernos de historia - geografía, ISSN 1136-6834, Nº 26, 1998 (Ejemplar dedicado a: Gerra zibilak eta indarkeria Euskal Herrian (XIX-XX. mendeak)), págs. 285-294

**Estudiantes de periodismo:** Del homo tipográfico al homo videns. Javier Sanchez Erauskin

Zer: Revista de estudios de comunicación = Komunikazio ikasketen aldizkaria, ISSN-e 1137-1102, Nº. 5, 1998

**Vitoria, capital misionera de la Hispanidad (1936-1945).** Javier Sanchez Erauskin

Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca, ISSN-e 2445-0782, ISSN 1131-5350, Nº 4, 1994, págs. 285-300

## Un sermón anticonstitucional de Fray Demonio en la Vitoria de los cien mil hijos de San Luis (4-v-1823)

Javier Sanchez Erauskin

Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca, ISSN-e 2445-0782, ISSN 1131-5350, Nº 2, 1992, págs. 269-296

### Colaboraciones en obras colectivas:

**Universidad y periodismo. Estudiantes. De un perfil tipográfico al audiovisual-digital.** Javier Sanchez Erauskin

IV Congreso Vasco de Sociología = IV. Euskal Soziologia Kongresua: 1978-1998, 20 años: actas del Congreso = 1978-1998, 20 urte: kongresuko aktak, 1998, ISBN 84-88949-34-0, págs. 395-403

**San Sebastián, centro de propaganda del primer franquismo (1936-1939).** Javier Sanchez Erauskin

Comunicaciones presentadas al II Encuentro de Investigadores del Franquismo: Alicante, 11, 12 y 13 de mayo de 1995, Vol. 2, 1995, ISBN 84-7784-157-8, págs. 231-238

### Bestelakoak

Jabier Sanchez Erauskin eta Juan Mari Arregik 1975ean, klandestinidadean, NOTICIAS DEL PAÍS VASCO EN ESTADO DE EXCEPCIÓN buletina sortu zuten, une hartan errepresioaz informatzen zuen bitarteko bakarra. 50.000 ale argitaratzen zituzten buletin bakoitzeko, ezkutuan Euskal Herrian eta Espainiako Estatuko gainerako erkidegoetan banatzen ziren. Guztira 22 buletin argitaratu zituzten.

Diktadura frankista hartako lekuko gisa, Parisko Ruedo Ibérico aldizkariak buletin bi sortzaileek egindako liburu bat argitaratu zuen. Izenburua EL ULTIMO ESTADO DE EXCEPCION DE FRANCO. Liburu hau ere klandestinoki banatu zen.

## Idatzitako... batzuk

### Bergamín en Euskadi, razones de un autoexilio

*Xabier Sánchez Erauskin, Periodista. 2012 URR. 13*



El 8 de setiembre de 1982, treinta años ha, el escritor José Bergamín, (uno de los grandes de la Generación del 27, la de sus amigos Salinas, García Lorca, Alberti, Cernuda...) llegaba acompañado de su hija Teresa, a Donostia. Venía a establecerse en Euskadi a vivir y morir en una tierra donde respirar en libertad. Huía del ahogo y de las mordazas madrileñas. No era un exilio más en su azarosa vida de errante republicano.

*Xabier Sánchez Erauskin junto al escritor José Bergamín en una imagen de inicios de los 80.*

Esta vez era él mismo quien elegía la ruta. Una decisión meditada meses anteriormente en las soledades de Fuente Heridos en Huelva. Tenía 86

años. Allí había escrito un estremecedor poema: «Fui peregrino en mi patria desde que nació/ Y lo fui en todos los tiempos que en ella viví/ Lo sigo siendo, al estarme ahora y aquí/ peregrino de una España que ya no está en mí/ Y no quisiera morirme aquí y ahora/ para no darle a mis huesos tierra española».

Para su mejor biógrafo, Gonzalo Penalva, la salida de Bergamín era de una lógica aplastante; «se trataba de fijar la residencia donde pudiera escribir cuándo y sobre lo que quisiera. Por eso se marcha a Euskadi. Bergamín jamás hubiera salido de Madrid si no le hubieran cerrado las puertas como escritor. en la práctica un veto para quien estaba obsesionado por la libertad e independencia en el oficio de «inquirir verdad y decirla».

Había que romper el muro de silencio al que también le había condenado «Sábado Gráfico», último reducto que le publicaba. Lo empezaría a romper a través del País Vasco, en el diario «Egin» y en la revista «Punto y

Hora». Aunque amortiguados los ecos por el distanciamiento y la marginación que rodeaba a ambas publicaciones abertzales, en ellas iba a cubrir la necesidad, casi existencial, de hacer oír su voz discrepante. En su primer escrito, «El interregno», publicado en «Punto y Hora», ajustaba cuentas pendientes de su forzado mutismo. Lo hacía con nombres y apellidos.

«Esta democracia tan a la española por achocolatada y babosa más que de los muertos nos está pareciendo la democracia de los gusanos; de sus gusanos devoradores del cadáver en putrefacción del franquismo (...) Los cuatro jinetes apocalípticos de este terrorismo estatal ultratúmbico y monarquizado que destruye España se llaman Fraga, Suárez, Gonzalez y Carrillo, sociedad nominal de irresponsabilidad ilimitada y de inseguridad pública».

Habían callado su voz, pero desde Donostia seguiría denunciando la «impostura general». El escritor maldito de quien Alberti decía en 1980, tres años antes de su muerte, que era «el más vilipendiado, temido, alabado y deliberadamente olvidado de ese llamado Grupo del 27... buena brasa para la hoguera de algún reciente inquisidor», no estaba por arriar su bandera republicana de libertad y por eso se autoexilió a Euskadi.

Cinco meses antes de su llegada, en mayo de 1982, en una entrevista para «Diario 16» anunciaba ya su decisión firme:

«Me voy de España porque está dividida, falseada y herida». Ese «fuera de España» era Euskadi. Lo ratificaría en su encuentro en Hondarribia con otro ilustre autoexilado, Alfonso Sastre, que le preguntaba la razón de su venida a Euskal Herria. Bergamín contestaba con contundencia: «Porque no me siento en España».

La decisión de venirse precisamente al País Vasco no era solamente una respuesta a las mordazas madrileñas. Menos aún una «ventolera senil», así calificó alguien su viaje sin retorno, que los medios silenciaron en sospechoso mutismo. Fue una decisión meditada y medida, incluso tomada un tanto a trasmano de la opinión de su gran amigo, el abogado Miguel Castells, que desaconsejaba el viaje por la situación política de nuestro país. La «querencia» por el País Vasco y su lucha era anterior. En febrero de 1979, en el mitin de una coalición republicana con el PC (ml) en un cine de Cuatro Caminos, había escandalizado a todos los bienpensantes españoles con un provocador «¡Viva Euskadi! ¡Viva la República!», justificándolo «Esta República que es España está defendiéndose por la resistencia de un pueblo heroico y admirable». El escritor, ya en tierra vasca, explicitaba a un periodista del diario «Egin»: «Estoy aquí no como republicano jubilado, como parecía dada mi edad, sino todo lo contrario. Por eso estoy aquí. No he venido a jubilarme, sino a pelear estando con los que pelean. A darles lo poquísimo que puedo darles y aceptar lo muchísimo que ellos me dan».

Bergamín iba a vivir casi un año en un ático de alquiler de la calle Egaña donostiarra junto a su hija Teresa. Fueron meses en los que vivió feliz y encantado, encontrando un entorno humano que le atraía y admiraba, recobrando la ilusión por la escritura, la poesía, sobre todo, y artículos sin mordazas.

Quiso vivir en Euskadi y morir en su tierra, y en su tierra, Hondarribia, está enterrado. Aquel día un montón de amigos le despidieron entonando el «Eusko Gudariak». Sobre su cuerpo, la ikurriña. Recojo de nuevo el testimonio de alguien tan poco sospechoso de partidismo como es su biógrafo, Penalva: «no cabe duda de que la bandera republicana cubriendo el féretro bergaminiano hubiera tenido un sentido más profundo y acorde con lo que siempre defendió. Pero, por otra parte, la ikurriña simbolizaba perfectamente el último combate de este luchador infatigable: fue la prueba inequívoca de que la muerte había encontrado al escritor en la brecha, con la pluma y el corazón puestos al servicio de la causa que creyó justa»

Está claro. Euskadi tiene una deuda con Bergamín; conservar su memoria.



## Sentido homenaje en Gasteiz a Xabier Sánchez Erauskin, «un rebelde con causas»

Ion Salgado, Aktualitateko erredaktorea / redactor de actualidad. 2023 AZA. 07



*Decenas de personas han asistido este martes en Gasteiz a la presentación del libro 'Xabier Sánchez Erauskin, vida de un rebelde con causas', escrito por José Félix Azurmendi. El acto ha sido un sentido homenaje a un hombre que fue encarcelado por su labor como periodista al frente de 'Punto y Hora'.*

*Acto celebrado este martes en Gasteiz, con Sánchez Erauskin en el centro.*

*«La cárcel de Nanclares/ es un gran cepo/ en la que amablemente/ me tienen preso, /penado y castigado/ por el supuesto/ de llamarle a Juan Carlos/ mal novillero». Xabier Sánchez*

Erauskin escribió estos versos en la prisión alavesa, donde fue encarcelado en 1983 por su trabajo al frente de la revista 'Punto y Hora'.

Periodista, militante, sacerdote, profesor... José Félix Azurmendi ha recogido sus andanzas en el libro 'Xabier Sánchez Erauskin, vida de un rebelde con causas', presentado este martes en la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa de Gasteiz. Allí se han dado cita amigos y familiares que han residido un sentido homenaje al protagonista de la obra.

*Presidiendo el despacho del capellán,  
el "Cristo del bacalao" de Reynaldo (1965)*

Jesús Barredo, periodista de Radio Vitoria, ha sido el primero en tomar la palabra incidiendo en que Sánchez Erauskin «es una figura tan irrepetible como entrañable». Un testigo directo de la historia de Euskal Herria, desde la guerra de 1936 hasta el día de hoy, pasado por la dictadura, la transición y las décadas de conflicto armado.

«Un gran periodista y un militante comprometido con las causas nobles», ha destacado Azurmendi, que al inicio del libro firma una «nota explicativa» resumiendo algunos aspectos de la biografía de Sánchez Erauskin, «niño de una familia represaliada por sus convicciones nacionalistas, educado en un ambiente hiperreligioso, seminarista en el elitista Seminario de Comillas, futbolista frustrado por un accidente grave, breve sacerdote en la Montaña Alavesa, cura obrero en los bacaladeros de Terranova, activista desde Madrid en el tiempo de la Transición, representante independiente por Álava en la primera Mesa Nacional de HB, director de 'Punto y Hora', y subdirector de 'Egin', que padeció prisión en Nanclares de la Oca por 'delitos' de opinión y acabó su vida profesional como profesor universitario de la UPV/EHU».

Las diferentes facetas de su vida han sido resumidas por los asistentes, comenzando por Félix Placer, quien ha puesto en valor su humanismo, «su corazón abierto y su vida militante», defendido «a los de abajo, a quienes sufren las oleadas de la injusticia y son oprimidos por el poder». Lo ha descrito como un «agitador de conciencias» que estuvo muy unido al célebre escritor José Bergamín, al que en 2012 dedicó un artículo en NAIZ titulado 'Bergamín en Euskadi, razones de un autoexilio'.

Placer: «Tiene un corazón abierto y una vida militante, defendiendo a los de abajo, a quienes sufren las oleadas de la injusticia y son oprimidos por el poder»



Xabier Añua, por su parte, ha narrado recuerdos de la infancia, primero en un colegio de monjas «bondadosas», y después en el de curas «cazorros, fachas y horrendos». Por suerte, «conseguimos que los cafres se convirtiesen en buena gente».

### De Okina a Terranova, más que un viaje



José Luis Sánchez Erauskin, su hermano, ha dado cuenta de la etapa de Xabier como religioso, como seminarista en Comillas y sacerdote en Okina. Su vida «evoluciona cuando cogió un barco y se fue a Terranova», donde comenzó a luchar por los derechos de los pescadores, logrando que contasen con un médico y que los armadores se hiciesen cargo del coste de repatriar los cuerpos de los marinos fallecidos.

*Misa en cubierta, a bordo del Monte Aizgorri (1965)* «Les animaba la vida y creó una leyenda», ha señalado Azurmendi, que ha hecho hincapié en su etapa como periodista en Punta y Hora y Egin. «Ha sido un gran profesional y un hombre con un talento para la escritura», ha aseverado.

Una opinión compartida por Txema Ramírez de la Piscina, quien ha relatado su primer encuentro con Sánchez Erauskin en la redacción de 'Egin' en Gasteiz. «Me llamaba la atención esa simpatía, esa capacidad que tenías de entablar contacto con la gente. Has sido siempre una persona insobornable,

crítico, que siempre te has desenvuelto con comodidad en estructuras férreas, ya sean de partidos o de organizaciones, porque en el fondo siempre has sido un ácrata convencido», ha subrayado.

Ramírez de la Piscina: «Siempre te has desenvuelto con comodidad en estructuras férreas, ya sean de partidos o de organizaciones, porque en el fondo siempre has sido un ácrata convencido»

José Ignacio Armentia ha dado cuenta de los años como profesor en la UPV/EHU, a donde llegó tras realizar un doctorado sobre el nacionalcatolicismo en Euskal Herria. Ha recordado y la relación de «amor y odio» que mantenía con la informática, lo que no le impidió participar en un curso de verano de veranos sobre periodismo digital en Barcelona allá por 1996.

Militante, periodista, cura o profesor, todos al coincidir al describir a Sánchez Erauskin como «un grandísimo amigo». Una figura que ha permanecido sentado y sonriente, prestando atención a un homenaje que ha reunido a decenas de personas, entre las que se encontraban 'Txiki' Muñoz y Txema Montero, por citar algunos nombres.

### Sanchez Erauskin, lubakiko kazetaria

*Txema Ramirez de la Piscina. 2023ko azaroaren 12a. BERRIA*

Astearte honetan gertatu da, Gasteizen. Ekitaldi xumea, baina hunkigarria. Liburu baten aurkezpena, La Floridako Ignacio Aldekoa Kultura Etxean. Izenburua: Xabier Sanchez Erauskin. Vida de un rebelde con causas. Kausa ugaridun pertsona izan da, bai, Erauskin. Omendua bertan izan da, baita bere biografo eta adiskidea ere: Jose Felix Azurmendi. Gaixotasun batek hitz egiteko gaitasuna dezente baldintzatu badio ere, Erauskinek oholtzatik adi-adi jarraitu du ekitaldia. Mutu. Gustura baina. Ohiko irriño pikaro-bihurriak lagundu dio ekitaldi osoan. Gertu izan du bere bizitzako konplize, maitale, euskarri eta zaintzaile izan den Mentxu Larrazabal. Baina, nor da Xabier Sanchez Erauskin? Zergatik da bereziki aipagarria gasteiztar xelebre honen ibilbidea? Itzal luzea du atzean: apaiza Okinan, itsasgizona Ternuan, gizarte-ekintzailea denean, kazetaria —batik



bat— Euskal Herrian, unibertsitateko irakaslea EHUn... Konpromisodun pertsona. Beti. Xabier gertutik ezagutzeko parada izan dugunok ondotxo dakigu zein erraza izan den beti berarekin bat egitea. Bere presentziak berak balio kutsagarriak transmititzen ditu: onestasuna, konplizitatea, gardentasuna, konpromiso etikoa eta... txantxarako gogoia.

88 urte beteak ditu. Ezer gutxi aldatu da. Mentxuk aipatzen duen bezala, Xabier despistatu mundiala da, auto-gidari arriskutsua, baina—aldi berean— metodiko ikaragarria bere artxibategian. Itxura narraseko jakintsua. Egitura zurrunetan deseroso ibili den akrata menderaezina.

Liburuaren protagonista Gasteizen jaio zen, 1935eko martxoaren 7an, gerra aurreko giro arras kutsatua sumatzen zen hirian. 40.000 pertsonatik gora bizi ziren «apaiz eta militarren hiri» hartan. Xabier jaio eta hamasei hilabetera, Gasteiz estatu kolpea eman zuten faxisten esku geratu zen. Giro makur hartan hazi zen bera. Etxean bertan pairatu zuen diktaduraren atzaparkada, aita —pentsamolde abertzalea zuen udal albaiteroa— gerra hasi eta berehala preso hartu baitzuten.

Abertzaletasuna eta erlijiotasuna. Bi adar horien bueltan ardaztu zen bere familia. Baita bere patua ere. Xabier giro horren fruitua izan da. Oso emaitza libreia, baina. Berak, abitua jantzi eta berehala, erabaki zuen sakristiako giro geldoa baino nahiago zuela Ternuako bakailao-ontzietan sumatzen zen haize bortitza. Urretik urrun. Elitetik aparte. Ponpa eta girgiletik at, Ebanjelioarekiko konpromisoa bere erara ulertuz; itsas-apostolutzan. Bizitza arriskatzen zuten arrantzale onduen ondoan. Gizarteko bazterretan bizi direnekin bat eginik. Haien eskubideak defendatuz, haien aisialdia gozatuz... beren-beregi zegozkion elizkizunak alde batera utzi gabe, noski. Inolako protagonismorik, dogmatismorik edota burokraziarik gabe. Umorez beti. Lotsagabe eta adarjotzaile aparta. Batik bat boteretsuekin. Samurra eta maitagarria behekoekin. Askotan kritika zorrotza erabili du kolore eta usain gutzietako hierarkiekin: izan gotzain, ministro, errege edota bere bihotzeko kazetako zuzendaritzarekin.



Izan ere, Xabier Sanchez Erauskin Egin egunkariak Gasteizen izan zuen lehen erredaktore-burua izan zen; kazeta bera sortu zenean, 1977ko irailean, alegia. Ardura desberdinak izan zituen egunkari horretan, baita Punto y Hora aldizkarian ere. Hain zuzen ere, bertoko zuzendaria zelarik, 1983ko apirilean, urtebetez kartzelatu zuten Xabier, ustez «erregea iraintzeagatik». Francoren osteko garaian, iritzi delitu bategatik kartzela zapaldu zuen lehen kazetaria izan zen bera. Egunotan, telebistaz telebista, jantziak urraturik dabilen Felipe Gonzalez orbangabeko presidente ohi hura zegoen orduan Moncloako lemazain bezala. Xabier zigortu zuen tribunal bera dabil orain Carles Puigdemont eta Marta Rovira kartzelatu nahian, «terrorismoa» egotzita. Nola aldatu diren gauzak, kamarada! Liburuan aipatzen den bezala, seguru asko jende gutxik jakingo du Xabier dela Que se vayan kontsignaren sortzailea edo, gutxienez, publikoki erabili zuen lehena. Leloak copyright-a izango balu, berea izango litzateke.

Izan ere, berak —J. Bordegaray ezizena erabiliz— argiratu zuen 1978an Que se vayan liburua Hordago argitaletxearekin. Liburua segituan bahitua izan zen. Hilabete batzuk geroago —Landazuri izengoitiarekin orduan— Que se vayan ya kaleratu zuen Hendaiako Mugalde argitaletxearen aterkipean.

Kartzelak ate batzuk itxi baina beste batzuk ireki zizkion Xabierri. Orduan estutu baitzuen lehendik Jose Bergamin poeta espainiar errepublikazalearekin zeukan harremana. Hark azken hatsa eman artean mantendu zuen publikoki bere konpromisoa liburuko protagonistarekin, baita Euskal Herriarekin ere.

Kartzelak asko markatu zuen Xabier. Bere fazeta poetikoa lantzeko aukera eman zion. Eta horren lekuko izan zen urte batzuk geroago argiratu zuen La cuenta de los pasos (1998, Vosa) poesia-liburua. Liburuak dakarren eskaintza esanguratsua da oso: A vosotros, ciudadanos sin nombre, / hermanos de las tinieblas / que pobláis las oscuras esfinges carcelarias (Zuei, izenik gabeko herritarrei, ilunpeko anaiei, espetxeetako esfinge goibelak gorpuzten dituzuenoi).

Joan den mendeko 70, 80 eta 90eko hamarkadetan kazetaritzaren ur lasterretan nabigatu genuen kazetariok gertutik ezagutu dugu Xabier. Oraingo kazetari gazteentzat ezezaguna bada ere, Xabier Sanchez Erauskin Euskal Herriko kazetaritzaren historian ohorezko tokia merezi duen profesionala da. Bidegile izan da: egiarekiko konpromisoagatik erreferentea, ahots gabekoei ahotsa emateagatik zigortua eta aginte ororekiko

jarrera kritikoa agertzeagatik baztertua. Bere luma, zorrotza bezain fina; bere konpromisoa, sendoa bezain erosezina.

Pello Zubiriak 2006an Larrun aldizkarirako egin zion elkarrizketa antologikoan Lubakiko kazetaria bezala etiketatu zuen. Datozen kazetari belaunaldi gazteek izan dezatela Xabier erreferente, batik bat berak bizitza osoan erakutsi dituen ausardia eta boterea zirikatzeke gogoia.

P.D. Aste honetan bertan etxe honetako Martxelo Otamendik eta Iñaki Petxarromanek Euskal Kazetaritza Sariak jaso dituzte. Zorionak haiei ere. Erauskin, Otamendi, Petxarroman, hiru belaunaldi, hiru erreferente, hiru ardatz. Silvia Intxaurrendok eta Jordi Evolek ere jaso dute aipamena. Zorionak haiei ere.

*Club Stella Maris (1963.1065)*

*St. Pierre - Canadá.*

### **Xabier, libre beti**

*Txema Ramirez de la Piscina.*

*Alea. 2024ko azaroaren 16<sup>a</sup>.*

"Askatasun gosea ipar eta izaera kritikoa ardatz izan ditu beti. Berezia eta transferiezina"

Joan den astean Euskal Kazetaritzaren urteroko gala izan zen Bilbon. Bertan ohoratu ziren profesionalen artean gasteiztar bat zegoen:

Xabier Sanchez Erauskin, kazetaria, irakaslea eta gizarte ekintzailea. Bera izan zen lerroon egileari bere lehenengo kazetari lana agindu zion pertsona. Ohorezko Saria eman zioten.

Sari horren bitartez, lanbidearen barruan egindako lan esanguratsua azpimarratzeaz gain, "kalitate pertsonal eta intelektuala" aitortu zaio.

Xabier Gasteizen jaio zen, 1935eko martxoaren 7an, gerra aurreko giro arras kutsatua sumatzen zen hirian.

40.000 pertsonatik gora bizi ziren "apaiz eta militarren hiri" hartan. Xabier jaio eta hamasei hilabetera, Gasteiz estatu kolpea eman zuten faxisten esku geratu zen.

Denetik egin du Xabierrek bere bizitzan: 50eko hamarkadan, Okinan apaiz. 60koan, Ternuako uretan, arrantzale. 70 eta 80koetan Madrilan eta Euskal Herrian gizarte ekintzaile eta kazetari eta 90ekoan

Kazetaritzako irakasle EHUUn. Egin egunkariak Gasteizen izan zuen lehen delegazio burua izan zen bera,

baita *Punto y Hora* aldizkariko zuzendaria ere. Askatasun gosea ipar eta izaera kritikoa ardatz izan ditu beti.

Horregatik sartu zuten preso Langraizko kartzelan 1983ko apirilean. Hamalau hilabetez izan zen itzalean. Bera izan zen Francoren ostean iritzi delitu bategatik kondenatua izan zen lehen profesionala. Audientzia

Nazionalaren arabera "erregea iraintzeagatik" sartu zuten preso; bai, orain Saudi Arabiaren epelean goxo bizi den gaizkile ustel hori kritikatzegatik.

Despistatu mundiala da bera, eta, aldi berean, metodiko ikaragarria bere artxibategian. Itxura narraseko

jakintsua. Egitura zurrunetan deseroso dabilen akrata menderaezina. Pertsonaia baroijar petoa. Umoretsu eta abenturazalea. Bere nortasunaren bila errari dabilen pentsalari librea. Pikaro bihurriaren irria du oraindik.

Berezia eta transferiezina.

Xabier gehiago ezagutu nahi duenak liburu honetan du aukera: Xabier Sanchez Erauskin. *Vida de un rebelde con causas* (2023, AFA). Jose Felix Azurmendik koordinatu du edizioa. Berea da pasarterik mardulena.

Zorionak Xabier jasotako sariagatik eta mila esker izan zaren bezala izateagatik.



### **Joxe Felix Azurmendi**



### **"Kazetaritzan konpromisoa mantentzen jakin behar da, profesionaltasuna galdu gabe"**

*Cira Crespo. 2023ko abenduaren 24an. ARGIA*

*Xabier Sanchez Erauskin. Vida de un rebelde con causas (Xabier Sanchez Erauskin. Kausak dituen errebelde baten bizitza) liburua idatzi du Joxe Felix Azurmendik (Durango, 1941), Egin eta Deia egunkarietako zuzendari izandakoak. Liburuan, datozen lerrootan, eta lerro artean, garai bati eta Herri bati buruzko lekukotasun ezinbestekoak daude.*

Gasteizko goiz hotz arrunt bat da. Autobus geltoki berrian elkartu gara. Joxe Felix Azurmendi Gasteiza maiz etorria da, baina auzo berri hau ez du ezagutzen. "Hotza da, baina ez

eguraldiagatik, lekua da hotza", dio. "Bai, azken urteotan auzo berri asko egin dituzte Gasteizen". Nahiz eta nekez uzten duen bere kazetari sena alde batera, eta bera hasi niri galderak egiten, azkenean, bere lagun Xabier Sanchez Erauskini buruz hitz egiteko manera aurkitu dugu. Sartu gara tabernaren epelera, eta hasi gara hizketan.

### **Zein da zuretzat Xabier Sanchez Erauskin?**

Niretzat izan da laguna; ikuspegi aldetik antzekoa, bai profesionalki, bai abertzale gisa. Biok nahiko konprometituak izan gara, gaztetatik.

*Egin* egunkariko zuzendari nintzela ezagutu nuen; artean Xabierrek liburuak argitaratzen zituen, batzuk erdi klandestinoak, beste batzuk guztiz klandestinoak. Eginera editore batekin etorri zen. Txamarra handi bat jantzita, eta bi kamera zintzilik, eta grabagailu bat... orduan ezagutu nuen. Handik urte batera edo bi urtera, berriz, *Punta y Hora* aldizkariko zuzendari gisa etorri zen Hernaniko eraikinera lanera. Eta harrezkero jada elkarren inguruan izaten ginen. Handik gutxira kartzelan sartu zuten. Kartzelako egonaldia buruz liburuan ere hitz egiten dut. Kartzelatik irten eta gero etorri zen *Eginera*, nire orde.

Sasoi hartan, gainera, nire gurasoen etxe ondoan jarri zen bizitzen, eta oso harreman estua izan dugu. Eta oraindik ere hor jarraitzen dugu. Ni igandero mezetara ez, bera bisitatzeraz joaten naiz. Gaixotu aurretik esaten nion, "ez zaitez gaixotu, bestela ez dut izango-eta gauza hauetaz norekin hitz egin".

### **Eta orain, gaixo delarik, berari buruzko liburua idatzi duzu. Zergatik uste duzu dela garrantzitsua liburua?**

Omenaldi gisa egin dugu, baina ez hori bakarrik. Nik uste dut bere biografiak zalantza asko erantzuteko aukera eskaintzen duela, baita hainbat galdera egiteko ere. Garai bat azaltzeko gizon eredugarria da: zer zen apaiz izatea? Zer zen konprometitua egotea Trantsizio garaian?

*"Hala dio Erauskinen fitxa polizialak: 'Ternuan egon zen bitartean separatismoa predikatzen jardun zuen'"*



**Has gaitzen, bada, hasieratik. Xabier gasteiztarra da. Nolako zen Gasteiz garai hartan? Beti entzuten da "apaizen eta militarren" hiria zela, eskuindarra. Baina larruazal horren azpian, baten besterik? Bazen giro abertzalerik?**

Bai, hemen mugimendu abertzale garrantzitsua garatu zen. Gasteizko giro intelektualak abertzaletasunarekiko joera zeukan 1936ko gerraren aurretik. *Monte Aizgorri-n (1965ko apirila)* Kualitatiboki beste leku batzuetan baino abertzale gehiago zegoen, izen oso ezagun batzuekin. Gero, gerra garaian, fusilamendu pilo bat izan ziren, erbesteratu asko, errepresio izugarria, gerra ondoko atxiloketa asko...

Xabierrek oso gogoan zeukan nola etorri zen

Franco 1946 inguruan, Francisco de Vitoriari eskainitako monumentuaren inauguraziora, eta nola, goiz hartan, euria bezala goitik behera, ikurriñen eta erresistenziaren esku-paper jasa izan zen, eta nola bere eskolako apaizak korrika eta presaka denak jasotzen ahalegindu ziren. Gero, atxiloketa piloa izan omen zen.

### **Bera Gasteizko familia ezagun batekoa da, ezta?**

Bai, albaiteoak izan dira, bai bere aitona, bai bere aita. Aitaren beste bost anai, berriz, apaizak izan zituen, herri honetan horrek esan nahi duenarekin. Hau da: letretako gizonak, garai hartako unibersitarioak. Gasteizko familia abertzalea zen, eta frankismoan zigortutakoa. Aitari zenbait urtez albaiteo izateko baimena kendu zioten, senitarteko batzuk fusilatu ere bai...

### **Sanchez Erauskin ere letretako gizona, ezta? Giro hartan elikatu zuen bere irakurtzeko eta idazteko gustua, agian?**

Bai, bere ahizpa idazlea da. Hala ere, giro hartan ere, bera beti izan da nahiko heterodoxoa.

### **Intelektual hitzak ondo definitzen du Erauskin?**

Bai, eta ahaztu egiten dute hori.

### **Non ikasi zuen?**

Apaiz-ikasketak egin zituen, baina ez edozein lekutan, Comillasen baizik, eliteko eskola batean, eliteko gizona izateko. Han hasi zen interesatzen Teologia berriaz, eta apaiz ezkertiarren ideietan arreta jartzen. Kontatzen du Comillasen euskal seminaristak musika jotzeko batzen zirela, eta han ezagutu zituela itsasoko euskaldunak. Ba

omen ziren kapitainen semeak, marinelenak... euskal giroan sartu zen (orduan hasi zen euskara ikasten) eta giro hori dago Ternuara joateko erabakiaren atzean. Zeren eta berak ez baitzuen ez Hego Amerikara ez Afrikara joan nahi izan... Ternuara, baizik. Hain zuzen, Saint-Pierre eta Mikelunen egin zuen egonaldia. Han galiziarrekin egin zuen harremana, batez ere. Hala dio bere fitxa polizialak: "Ternuan egon zen bitartean separatismoa predikatzen jardun zuen". Garai oso garrantzitsua izan zen bere bizitzan.

**Ternuan, apaiz aritzeaz gain, aldizkari batean kolaboratzen zuen. Han hasi zen idazten?**

Beti idatzi izan du. Idazlea da. Umetatik idatzi ditu dietarioak. Inork ez ditu ireki oraindik, eta aztertu beharko dira uneren batean. Idaztea eta kirola egitea izan dira bere zaletasun handiak.

**Geroago egin zuen kazetaritza karrera, ezta?**

Teologia eta Filosofia ikasia zen, eta kazetari egin zen *Los hombres del mar* (Itsasoaren gizonak) izeneko aldizkaria zuzendu behar izan zuelako; artean, Manuel Fragaren lege bat tarteko, zuzendari izateko kazetari titulua behar zen. Beti izan da gizon konprometitua, eta oso profesional zorrotza ere bai.

*"Eitb-koek pentsatzen dute euskarari inbertitzea ezker abertzalean inbertitzea dela"*

**Zure liburuak *Vida de un rebelde con causas* du izena. Txema Ramírez de la Piscina, artikulua batean, Sanchez Erauskin "lubakiko kazetari" izendatu du... Zer moduzko lekua da lubaki bat kazetaritza egiteko?**

Jakin behar da konpromisoa mantentzen, profesionaltasuna galdu gabe. Zeren irakurleak ikusten badu oso abertzalea zarela, baina profesional kaxkarra...

*Egineko zuzendaria nintzela kazetari alemaniar batzuk etorri ziren bisitan, gure funtzionamendua ikustera, eta galdetu zidaten: "Zuretzat zer da egunkari batentzat garrantzitsuena?", eta erantzun nien: "Ordun ateratzea". Eta gelditu ziren harrirituta. Noski. Gure egunkaria beste egunkariekin batera banatzen zen, eta ez bazegoen besteekin batera banatzailea iristen zen unean, ez zegoen banatzerik.*

Beste hau ere esan nien: "Hemen denok harmonian egiten dugu lan, ia denok helburuetan pentsatzen dugu, baina ordu batetik aurrera kapitaina daukan itsasontzi bat bezalakoa da hau, eztabaidarik onartzen ez duena, eta niri dagokit kapitaina izatea. Hurrengo egunean, kritika dezatela nahi dutena. Baina egunero atera behar den egunkari bat ezin da asanblearioa izan, erantzukizuna hartuko duen norbait behar du".

**Profesionaltasun faltagatik atera zen Xabier Eginetik?**

Xabier Eginetik atera zen bertan nagusitu zen ildoarekin konforme ez zegoelako. Kritika zorrotza egin zuen, esanez *Egin* txarto politizatu zela, alde batera utzi zuelako, bere ustez –eta nire ustez ere bai– logika periodistikoa.

**"Guk politizazio adimentsu baten alde egiten genuen" zioen.**

Kanpoko itxurari ez zion garrantzirik ematen. Baina beti saiatzen zen konpromisoa eta profesionaltasuna mantentzen. *Egin* asko saltzen zen, eta oso egunkari inportantea zen, ez bakarrik ezker abertzalearentzako,




langileentzako, emakumeentzako... profesionalak ginelako lanean. Gazteak ginen, ondo saltzen zen, eta guztiak pozik zeuden, ezker abertzaleko buruak izan ezik.

**Gogorra izango zen Egin uztea.**

Oso gogorra izan zen bai, eta oso haserre irten zen. Herri Batasunako mahaia nazionala ere bere kontra... Esan zuen: "Ordezkorik ez duen proiektu bat hondatuko duzue, eta luxu handiegia da hori guretzat".

**1993an egunkari batera idatzitako gutun batean hau zioen: "Ez dute kritika onartzen, eta are gutxiago autokritika...". Euskal Herrian autokritikarako gaitasun falta dago?**

Begira, horrek politikarekin zer ikusi handiagoa dauka kazetaritzarekin baino. Egunen batean idatziko dut... badakizu ezker abertzaleak zergatik ez duen autokritikarik egin? Bada, hasteko, aldaketa asko egon direlako. ETA desegin zenean ez



**Xabier Sánchez Erauskin**  
***Vida de un rebelde con causas***

José Félix Azurmendi

zegoen erakundearen hasieran ibilitako inor jada, ez da egon jarraipenik. Orduan, ezin autokritikarik egin, nahita ere. Ez dago bururik esan dezakeenik, “hau egin nahi izan genuen, eta gero hau pasatu zaitzagun, eta gero bide okerra hartu genuen...”. Eta autokritika ezaren beste arrazoi bat da gaur egun debate batzuk oraindik ezin direla publikoki eman. Baina, seguru nago, pribatuan izan dira kritikak eta autokritikak.

### **Egin utzi eta gero, unibertsitatean irakasle aritu zen. Gaur egungo kazetaritza nola ikusten du?**

Erabat desberdinak dira gaur egungo kazetaritza eta berak unibertsitatean ikasi eta irakatsitakoa. Ez bakarrik ideologikoki, formalki ere bai. Gaur egun ia ez da egunkaririk erosten... nola eta non irakurtzen dira gaur albisteak? Irakurtzeko eta informatzeko beste modu bat ari da sortzen. Hondar bat geratzen dela uste dut, baina oso zaila da jendea nola informatzen den kontrolatzea ere. Eta kuriooa da, sareetan zein astakeria esaten diren ikusita, Euskal Herrian behintzat emaitza politikoak eta gizartea bera nolakoak diren.

EAJ zergatik ez da PPrekin joaten? badakielako boto emaileen artean ere nahiko giro aurrerakoia dagoela. Hori ikusten da Sahara dela, edo Palestina dela... eta ez da ezker abertzalekoak direnik, baina giroan dago. Hori guztia, komunikabideen % 90ek esaten eta irakasten dutena kontrakoa izanik. Zer da? Ez direla komunikabideok ikusten, ez direla entzuten? Ala herritarrak ez direla fidatzen, eta badakitela ematen dizkieten mezuak irakurtzen?

### **Badu Euskal Herriko kazetaritzak berezitasunik?**

Oso kuriooa da. Trantsizioan bazirudien frankistenak izandako egunkariek porrot egingo zutela, eta batzuk bai, baina beste batzuek indartsu jarraitu zuten. Denok pentsatzen genuen, Herri hau abertzale izanda, bai *Deiak* bai *Eginek* indar handia izango zutela, baina ez da hala izan. Kuriooa da *El Correo Españolen* nagusitasuna, *ABC*ren antzeko ildo editorialarekin... Euskadi da, esango nuke, toki bakarra zeinetan herritarrek, bozka emateko orduan, ez dioten jarraitzen irakurri ohi duten komunikabidearen ildoari. Prentsa abertzaleak oso indar gutxi dauka, espero zena baino gutxiago, behintzat; ez du jakin gehiengoetara iristen. Abertzaleek ez dute jakin beren prentsa maneiatzen. Ez dute ulertu nahi izan egunkari baten papera ez dela alderdiko prentsa izatea. Euskarazko prentsari dagokionez, azalpena beste bat da, hizkuntzarena noski. Baina, ARGIAK adibidez, ETArekin garai gogorrenetan nahiko askatasun mantendu zuela esango nuke. Pello Zubiriaren garaian, izango ziren presioak, baina duintasun handiz jokatu zuten... eta orain ere bai. Ahalegina egin behar dugu denok kazetaritza duin bat egiteko. Eta gaur egun, niretzat, *Garak*, *Berriak* eta ARGIAK kazetaritza duina egiten dute; baina zenbat jendeak irakurtzen ditu?

Ikus-entzunezko munduari dagokionez, gauza bera: ETB1 ez du ia inork ikusten.

Badakitelako euskarak edo euskaldunak ezker abertzalearen munduan mugitzen direla.

ETArekin ekarpen garrantzitsua izan zen aurrerakoia izatea zentzu zabal batean, eta eman zion euskarari garrantzi handia, eta hori islatu da gero ezker abertzalean eta euskal munduan. Eitb-koek pentsatzen dute euskararen inbertitzea ezker abertzalean inbertitzea dela.

### **Zer dute ikasteko kazetari gazteek Erauskinengandik?**

Lanbidea nola defendatzen eta maitatzen den, eta nola mantendu ilusioa. Gu beti gauza berrien bila ibili gara. Hori esan nahi dut: ilusioa ez galdu, eta mantendu zure ideiak, zure duintasuna. Izan pertsona askea, baita bozka ematen diozun alderdiarekiko ere.



### **Sánchez Erauskin «el conspirador»**

Artefaktua. 31 DIC. 2024

El último día de 1982 'Egin' publicó un dossier en el que recogía las detenciones habidas ese año. Lo presentaba, bajo el título «¡¡Abran! Es la Policía», J. Abiraneta, seudónimo utilizado por el periodista Xabier Sánchez Erauskin, quien poco después sería encarcelado por sus artículos.

En su edición del último día de 1982, 'Egin' publicó un dossier de cuatro páginas en el que daba cuenta de las detenciones habidas ese año: «365 días de detenciones en Euskadi. Todo un récord», recogía en portada. Un triste récord de cientos de detenciones, detallado mes a mes, día a día. La introducción del mismo estaba firmada por J. Abiraneta, seudónimo utilizado por el periodista de 'Egin' y director de 'Punto y Hora' Xabier Sánchez Erauskin: *¡¡Abran! Es la Policía. J. ABIRANETA*

Con este o parecido saludo ritual y con la chapa o la pistola por delante, se han ido poblando las 365 noches del año 82 en Euskadi.



Se ha batido un triste récord; el de los sobresaltos nocturnos. El brusco frenazo de los jeeps o de los zetas en la calle desierta. El atemorizado acecho de los vecinos atisbando tras las cortinas y los visillos. Y, por fin, entre sombras confusas y rumores de interrogatorios secos, el traslado al furgón. Y tal vez el color del pantalón, de la cazadora o del jersey logra despejar el angustiado interrogante que deja otra vez en suspenso la respiración del barrio: ¿A quién se han llevado hoy? ¡¡Abran! es la Policía.

*Artículo de J. Abiraneta que abría el dossier sobre detenciones en 1982 (EGIN)*

Lo verdaderamente estremecedor es que cada detención, los cientos y cientos de fríos nombres que se recogen hoy en muda y patética denuncia, cada detención tiene su historia propia, personal e intransferible. Para unos es la sensación atroz de ser arrancado a inconfesables infiernos, para otros el desgarró de dejar a los suyos perdidos en la casa en la fría madrugada, para todos la impotencia de saberse zarandeado, confuso, inerte ante el chaparrón de insultos o de sopapos que garantiza la Ley Antiterrorista. Cada detención tiene su historia y más de un millar de ciudadanos y ciudadanas de Euskadi conservan aterrados en su retina la tremenda historia que vivieron una noche del 82.

¡Abran! Es la Policía.

Es la detención y son los días ciegos pasados en las comisarías y los cuartelillos. Los miedos y terrores ante el dolor físico y concreto, la tremenda laxitud ante la imposible respuesta, ante la provocación medida y ajustada. La rabia de la impotencia hecha piltrafa humana al fondo de un calabozo. Y el sentimiento intenso de la injusticia, del atropello... Saber que tu posterior denuncia de malos tratos y torturas se morirá tras papelada. Y encima, el miedo en el cuerpo con la mirada feroz atravesada a diez centímetros... «Como digas algo de esto al juez, te vas a acordar toda la vida».

¡¡Abran! Es la Policía

Es la increíble historia que tipifica y caracteriza por sí sola un país. Porque en Madrid, o en Valencia, o en Sevilla, hace muchos años que se olvidaron del sabor amargo y atroz de los frenazos en la noche, de las velas furtivas tras las cortinas y de los compañeros arrastrados a los furgones.

Pero aquí, en Euskadi, estamos batiendo, lo hemos batido en este tremendo año 82, el récord de las detenciones.

¡Numeros cantan!

Y detrás de los fríos números, los nombres y los apellidos, las personas de carne y hueso que todavía en estos últimos días del año sufren tremendas y alucinantes pesadillas recordando la noche en que les apuntaba una pistola y una voz metálica y casi monótona repetía:

¡Abran! Es la Policía.

**Y Bergamín apareció en el juzgado**  
*Página de 'Egin' con la imagen de Bergamín frente al Juzgado, acompañado de su hija y el abogado Iñaki Esnaola (EGIN)*

El mismo día que 'Egin' publicó ese dossier, el escritor madrileño afinado en Euskal Herria José Bergamín, con 87 años recién cumplidos, prestó declaración en un Juzgado de Donostia y se declaró autor de otro artículo publicado en 'Egin' el 19 de octubre de ese mismo año, firmado precisamente con el seudónimo J. Abiraneta, tal y como informó 'Egin' en su edición del 2 de enero de 1983:

**José Bergamín declaró ante el Juzgado de San Sebastián por un artículo publicado en EGIN**

Al ilustre escritor se le han abierto diligencias previas al declararse autor de un artículo firmado bajo el seudónimo J. Abiraneta.

El escritor, según declaró ante el Juzgado de San Sebastián, nació en Madrid el 30 de diciembre de 1905 - en decir que acaba de cumplir los 77 años - en la plaza de la Independencia, hijo de Francisco Bergamín García y Rosario Gutiérrez López.

Mientras estos datos eran transcritos, José Bergamín se fijó en una reproducción del cuadro "Guernica" de Picasso y preguntó a los escribanos del Juzgado desde cuándo la pintura estaba adhiriendo aquellas paredes. Tras ser contestado que el cuadro estaba allí desde hacía un año, el escritor le señaló que el Picasso no había nacido una día y que su obra no había nacido una vez que su obra no nacía.

A la salida del Juzgado, José Bergamín manifestó que cuando se recibió la notificación de su proceso "querer que ese artículo sea el primer que se me imputa".

Acusado al escritor madrileño, su abogado Iñaki Esnaola y el director de EGIN, José Félix Atxarotza, se le han abierto diligencias previas a la publicación de un comunicado de ETA militar en referencia al atentado que realizó esa organización contra tres vecinos de Remota el pasado mes de noviembre.

Igualmente se le ha notificado una querrela criminal en la que el Ministerio Fiscal exige distintos artículos aparecidos en las páginas de EGIN y que son los siguientes:

"Reintegración de la acción" del 9 de octubre. "Comunicado de los grupos en huelga de hambre" del 14 de octubre. "Una cámara para nosotros" de Herri Batasuna del 14 de octubre. "ETA apoya las candidaturas de Herri Batasuna" del 21 de octubre. "Rememora obra y pueblo" del 21 de octubre y "Comercios Asociados Euzkadi" del 23 de octubre.

Tras una reunión conjunta celebrada por el Secretario del Comité Central y la Secretaría de Política Municipal del Partido Comunista de Euzkadi (PCE-EPK), este partido ha decidido presentarse a las próximas elecciones municipales en sus candidaturas propias en todos aquellos municipios donde mantenga organización. Esta decisión se refiere a las sus provincias de la Comunidad Autónoma, así como a Navarra y para informa una nota de este partido.

«En cumplimiento de una orden dictada por el Juzgado Central número cuatro de Madrid, el ilustre escritor José Bergamín prestó declaración el viernes en el Juzgado de San Sebastián declarándose autor de un artículo publicado en 'Egin' el pasado 19 de octubre de 1982 en su página 4, en la columna habitual 'Puntaren Puntan' firmado con el seudónimo también habitual de J. Abiraneta.

Bergamín confesó ser autor del citado artículo, aunque manifestó que la firma que aparece al pie del artículo habitual en la sección de 'Egin' pertenece a un colectivo compuesto por distintas personas».

